

Imotzek hobekuntzak egingo ditu eraginkortasun energetikoaren eta mugikortasun jasangarriaren inguruan Biltegi-Frontoi gunean, Latasan

102.755,38 euroekin finantzatutak lau proiektu gauzatuko dituzte.

- Gauzatuko diren proiektuen helburu nagusia helmugan turismo jasangarria lortzen laguntzea da. Hori guztia, instalazioen ingurumen-inpaktua murriztuz eta mugikortasun iraunkorra bultzatzeko eskaintza oso bat garatuz.
- Baliabideen kudeaketa jasangarrirako, beste jarduerekin bateragarria izateko eta bertako izaera errespetatzeko, entitate publikoak, turismo eragileak eta herritarren arteko elkarlana funtsezkoa izango da.



Latasako geltoki zaharrean bizikleta-ekipamenduen sarean energia-eraginkortasuna hobetzeko eta txirringarientzako zerbitzugune bat jartzeko jarduketak Imotzeko Udalak gauzatuko ditu, Alfredo Alzueta alkateak eta Arantxa Arregi Cederna Garalur Elkarteak lehendakariak, udalaren exekuziorako hitzarmen arautzailea sinatu ondoren. Proiektuak Plazaola-Sakana-Ultzamaldea Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planean sartzen dira. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia

Plana, Europar Batasunak finantzatua: 102.755,38 euro. Dirulaguntza hori Cederna Garalur elkarteari eman zaio.

Hala, eragin eremua eta abian jarriko diren proiektuak aurkeztu dira:

Biltegia Plazaolako tren-geltokiko biltegi zaharra da, Imotzeko Udalak erosi eta berritua mugaz gaindiko EDERBIDEA (INTERREG – POCTEFA) proiektuaren testuinguruan, eta funtsezko jarduera-eremuetako bat izango da. Eraikin honetan jatetxe-gune bat (taberna-jatetxea), bertako produktuak erakutsi eta saltzen dituen denda txiki bat eta turismo-informazioko mostradore bat daude. Bestalde, frontoia, Biltegiaren ondoan

dagoena, kirol-erabilera duen espazio estali eta irekia da. Zikloturistentzako dutxak eta komunak ditu, eta sarbide elektronikoaren kontrola du.

Proiektuei dagokienez, "Latasako Biltegi-Frontoi guneko frontoiaren estalkian instalazio fotovoltaikoa" aktuzioak gunearen kontsumo elektrikoa nagusiki iturri berriztagarrietatik etortzea du helburu bezala. "Latasan eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriek" birgaitze energetikoa eta luminarien ordezkapena egingo dute. Esku-hartzea osatzeko, "ibilgailu elektrikoak kargatzeko bi puntuen instalazioa" eta "bizikletak gordetzeko iglu bat instalazioa" aurrera eramango dira. Inbertsio horiek lurraldea kohesionatzeko gaitasuna handitu ahal izango dute.



Argazkietan: Alfredo Alzueta Imotzeko alkatea, Arantxa Arregi Cederna Garalurreko lehendakaria, Jose Angel Iturralde Imotzeko zinegotzia eta Irati Lure Gorraiz Plazaola-Sakana-Ultzamaldea Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planeko Cedernako teknikaria.